



Denbora

1 Aurkitu irudian

Hondartzara joateko goiz den arren, Ander flotaġailua eroatera joan da. Dendan hiru pare flotaġailu berdin topatu ditu. Zein?



1- Horia 2- Gorria 3- Urdina 4- Berdea

3 Margotu eta asmatu

Zenbaki bakoitza dagokion kolorearekin margotzen baduzu, gaur egun modan dagoen tresna bat agertuko zaizu. Zer dago ezkutuan?

2 Itzalak

Ez da ezer ulertzen, ezta? Gezurra badirudi ere, hizkiak lekuz mugituz gero lau gorputz atalen izenak osatuko dituzu. Zein?

DURSURA

□ □ □ □ □ □ □ □

BiGEA

□ □ □ □ □ □ □ □

EBALRRAI AHAO

□ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □

□ □ □ □ □ □ □ □

-pasa




Mari Mar Gartzia
Aimar Irigoien
Mikel Mindegia
Juan Manuel Erasun

Segalaria
Aizkolaria
Txinga eramale
Harri-jasotzailea

4 Sagu Jakintsua

Herri kirolak ikustea gustatzen al zaizu? Hala bada, ez duzu arazorik izango bikote hauek osatzeko.

Erantzunak: 2.- Begia, belarria, sudurra eta ahoa. 3.- Sakelekoa. 4.- Mari Mar Gartzia-txinga eramale, Aimar Irigoien-harri-jasotzailea, Mikel Mindegia-aizkolaria, Juan Manuel Erasun-segalaria.



Etxeko baratza eta animaliak

Jokoan amaiera arte iraun nahi bada, animaliei edo barazkiei buruz dakizuen gogoan izan beharko duzue. Joko azkarra eta dibertigarria da.

1. Jokalari guztiak borobilean bildu ostean, heldu batek barazki baten izena aipatzen du ozen; lekak, esaterako.
2. Gainerako jokalariek, aipatutako barazkiaren arabera, «goian» edo «behean» oihukatu beharko dute. «Goian» ahoskatuko dute aipatu den barazkia lurraren gainetik hazten bada –tomatearen, letxugaren eta lekaren kasua–; lurrazpian hazten bada, berriz, «behean» esan beharko dute –horixe izango litzateke patataren, arbiaren edo azenarioaren kasua–.
3. Hanka sartzen duen jokalaria, kanporatua geratuko da. Jokaldia amaitu arte ezingo du berriro jokoan parte hartu.
4. Lehenengo jokaldia barazkiekin egin den arren, hurrengoan beste elementu bat har daiteke gaitzat; animaliak, esaterako. Kasu horretan, animaliak zein inguruetan bizi diren kontuan hartuz, jokalariek «lurra», «ura» edo «zerua» aipatu beharko dute.